

## LAUDIOko EAJ-PNVren PRENTSA OHARRA.

### 1.- OHZren inguruan

EAJ-PNV audioarrek **gai honi buruzko zalantza tekniko-juridikoak argitze aldera Batzorde Teknikoa eratu izanaz pozten gara**. Zalantzak arlo hauen ingurukoak dira:

- MERKATARITZA LOKALEN balioztatzea.
- Eraiki gabeko orubeen balioztatzea.
- ERASAN URBANISITIKOEN analisisa (mendekotasunak, urpean gera daitezken orubeak, trenbide ingurukoak, etab.)
- ZERGA TIPOAREN MURRIZKETA.
- Errenta txikientzako HOBARIAK.
- GAINBALIOA.

### 2.- 2012ko AURREKONTUEI BURUZ:

OHZri buruzko gaia bideratuta, EAJ-PNVk gure **erabateko ardura** adierazi nahi dugu, 2012ko Aurrekontuen inguruan Udalak agertzen duen egoera ikusita.

Aurrekontuak **Udaleko KUDEAKETA ERRAMINTA garrantzitsuena** dira eta **egun arte ez dugu horren inguruko inolako berririk** izan. Ez digute bertako taldeei gaia landu ahal izateko inolako zirriborrorik aurkeztu. Gure inguruko udalerritan, ordea, aurrekontuak adostu edo zirriborro zehatzak lantzen ari dira. **Sistematikoki murrizketak egiten ari direla ohartu gara eta ez dugu horien inguruko ziurtasunik ez frogarik.**

**BILDU LAUDIOK ez du bere Hauteskunde Programan aurreratu bezala, aurrekontuak urte hasierarako onartzeko hitza bete.**

Eta guzti honegatik, 2012 urterako Aurrekontuen zirriborroa berehala aurkez diezagula eskatzen diogu Gobernu Taldeari.